



DEIALDIAREN OINARRIAK BLOGGERS JET LAG BIO 09

1. DEIALDIAREN HELBURUA

Bilboko Udalaren Enplegu, Gazteria eta Kirol Sailak “JET LAG BIO 09. BILBAO URBAN EXPRESSIONS” antolatu du eta honen barruan programaren web 2.0 espazioak. JET LAG BIO 09 programa Bilbao Aktiba! II. Gazte Planaren barruan dago. Hona hemen JET LAG BIO 09ren ezaugarri batzuk:

- Munduko 6 hirietako gazteen eta gazte-taldeen adierazpideak dira ardatza eta horiek sustatu, bultzatu eta 2009ko urriaren 1etik 4ra izango den jaialdi batean jendaurrean aurkeztea ahalbidetzen du.


- Planaren ezaugarri nabarmenenak berrikuntza, sormena, trukea, nazioarte-mailakoa izatea eta parte-hartzea dira.

- Gazte jendeak edo taldeek bide eta modu ezberdinak erabiltu parte hartuta eratzen da programa; hau da, behin ekimenak sustatuta, diseinuan, garapenean eta ebaluazioan, besteak beste, parte hartzeko espazioak eskainita.

Lehen edizioan, gazteek eurek dinamizatutako 2.0 web espazio bat, “BLOG HIRIAK”, izan zen jaialdiko hirietara ikuspegi gazte eta anitzetik hurbiltzea ahalbidetu ziguna.

JET LAG BIO 09 honek ere 2.0 espazioaren alde egin nahi du eta proiektuan interesatuta dauden 18 eta 35 urte bitarteko bilbotarrei proiektu birtual honetan modu aktiboan parte hartzeko aukera eskaintzen die.





2. JET LAG BIO 09ren 2.0 ESPAZIOAK ETA GIZARTE SAREAK

JET LAG BIOk baditu 2.0 espazio bi webetan, baita gizarte-sare batzuk ere. Gazteek dinamizatzen dituzte gizarte-sare horiek; izan ere, gazteak dira protagonistak eta dena egiten da haien ikusmoldetik. Hau da:

- Gazteek eta gazte-taldeen adierazpideak erakusten dizkigute.
- Jaialdiko hirietara hurbiltzen gara gazte begirada anitz batetik.
- Jaialdiko hirietako gazteen eta gazte-taldeen 2.0 espazioetara konektatzen gaituzte.
- Jaialdiko gizarte-sareak dinamizatzen dituzte.
- Jaialdia egiten eta horren zabalkundea egiten parte hartzen dute, bai zehaztapenean, programazioan, espazioen kontzepzioan, jaialdi aurrekoaren eta jaialdiaren beraren narrazioan, ebaluzioan eta abarretan ere.

Hots, JET LAG BIO 2.0 proiektuak ez du hartzen bere baitan jaialdiaren difusioa eta sustapena, harago doa eta teknologia berrien bidez gazteek euren-eurena dutena jaialdiaren gaiaren barruan erakutsi eta mugiarazi nahi du.

3. BLOGGERRAK AUKERATZEKO PROZESUA

2.0 espazio baten partaidea izan nahi duten 18 eta 25 urte bitarteko Bilboko gazteentzat deialdi irekia egiten da.

Helburua mugitzeko kezkak dituzten 6 gazte aktibo, dinamiko eta komunikaziorako eta adierazpenerako gaitasun handia dutenak aukeratzea da. Beste gazte batzuekin konektatzeko gai izango diren pertsonak, hirietako gazteen ikusmolde batetik non bizi diren eta zein adierazpide erabiltzen duten adieraziko digutenak.

Hautaketa-prozesuak hiru fase edukiko ditu:

1. fasea: deialdi irekia egitea eta hautagaitzak hartzea.
2. fasea: hautaketa egitea eta emaitza jakitera ematea.
3. fasea: proiektuan sartzea onartzea.


1. fasea: deialdi irekia egitea eta hautagaitzak hartzea.

Interesatuak behean azaltzen dena bidali beharko dute ekainaren 5a baino lehen helbide elektronikoa honetara: info@bilbaojetlag.net

-Curriculum bat orain dela gutxi ateratako argazki batekin. Datu hauek azalduko dira:

- Izen-abizenak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, jaioteguna eta harremanetan jartzeko telefonoa.
- Prestakuntza eta esperientzia profesionala, egonez gero.
- Bidaietan izandako esperientzia, jaialdiko hiriak edo antzekoak ezagutzen dituen.
- Zaletasunak, kezkak, talde eta elkarteetan izandako esperientziak.
- 2.0 munduan eta gizarte-sareetan izandako esperientziak eta kezkak.
- Hizkuntzen ezagutza eta gaztelaniaz, euskaraz edo jaialdiko hirietako hizkuntzaren batean mezuak idazteko gaitasuna.
- JET LAG BIO 09ri edota hirietako gazteen adierazpideei buruzko mezu (post) bat euskaraz edo gaztelaniaz.
- Lerro gutxitan, blog-ean argitaratzeko materiala nola antolatu edo orientatuko lukeen azaltzea.

Interesatuak 2008ko edizioko 2.0 espazioak kontsulta ditzakete eta zalantzak argitu edo orientazioren bat behar izanez gero, posta elektronikoz jaialdiaren antolatzaileei idatzi (info@bilbaojetlag.net) edo telefonoz deitu dezakete Bilbao Gazte Sarera (944204488).



Oinarrizko informazioa edukitzeko, hona hemen aurten blog-ak izango dituen hasierako gaiak:

- Hirietako gazteen adierazpideak.
- Jaialdiko hiriak gazteen ikusmoldetik eta adierazpideak garatzeko eremu bezala: Bilbo, Berlin, Medellin, Shanghai, Dakar eta San Frantzisko.
- Jaialdiko hirietako gazteak eta gazteen taldeak.
- Jailetako gaiak edota hirietako gazteek garatutako 2.0 espazioak.
- Orain eta hemen gertatzen ari dena, jaialdiko hirietan, gazteen munduan.
- Jaialdia bera.

2. fasea: hautaketa egitea eta emaitza jakitera ematea.

Hautagaitzak aztertuta, JET LAG BIO 09ren batzorde antolatzaileak www.bilbaojetlag.net webgunean argitaratuko ditu hautatutako pertsonen izenak.

Hautaketa egiteko hiru elementu hauek hartuko dituzte kontuan: curriculum, mezua (post-a) eta blogean argitaratuko direnen materialei emango lieketen orientazioa.

3. fasea: proiektuan sartzeari onartzea.

Behin pertsonak hautatuta, bilera bat egingo dute horiekin proiektua aurkezteko eta proiektuan sartzeko akordioa sinatzeko. Hori eginda, 40 eguneko probaldia hasiko da.

4. HAUTATUTAK BLOGERRREK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK


JET LAG BIO bloggerra izateak gazte batzuek eta jaialdiaren batzorde antolatzaileak osatutako giza talde bateko kidea izatea dakar berekin. Giza talde horrek, batez ere, internautak hirietako gazteen adierazpideetara, gazteen taldeetara eta jaialdira hurbiltzea du xede.

JET LAG BIO bloggerrak bere aldetik eta beste parte-hartzaileekin talde-lanean aritu behar du eta 2009ko ekainetik urrira bitartean lan hauek egin beharko ditu:

- Blogean 4 mezu (post) idatziko ditu 15 egunik behin dagokien gaiei buruz (hirietako gazteen adierazpideei eta jaialdiko hiriei buruz), ekainetik urrira arte, egutegia eta argitaratzeko zehaztutako gaiak errespetatuta.
- Jaialdiko blog-a antolatzeke, programazioa alderatzeko, komunikaziorako, ebaluaziorako eta bestelako bileretan parte hartuko du bloggerrak.
- Jaialdiaren aurrekoan eta jaialdian aktiboki parte hartuko du.
- Jaialdiko gizarte-sareak dinamizatuko ditu.
- JET LAG BIO 09 jaialdiaren komunikazio-tresnekin eta euskarriekin lan egingo du.

Bloggerrak proiektuan sartzeko akordioaren bidez konpromisoa hartuko du atal honetan azaldutako lanak egiteko.

Hartutako konpromisoak ez betetzeak eta programaren eskakizunetara egokitzen ez diren jarrerak bloggerra kanpoan uztea ekar dezakete.



5. JET LAG BIO 09k BLOGGERREKIKO HARTZEN DITUEN KONPROMISOAK

JET LAG BIO 09 jaialdiaren antolatzaileek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Bloggerren taldea dinamizatzea eta prestakuntza zein laguntza teknikoa ematea jaialdiaren komunikazio-tresnei eta euskarriei buruz eta blogaren funtzionamenduari buruz.
- Jaialdiaren antolaketa, programazioa, komunikazioarekin zerikusia duten alderdiak eta beste asko nola doazen agertzea eta horiei buruz informazioa ematea.
- Blog Hiriak 09aren bloggerrei protagonismoa ematea.
- Egin beharreko lanei eta horiek dituzten gastuei aurre egiteko laguntza ematea. 1.000,00 € gordin pertsonako.

9. AUTORE ETA IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUEN BABESA

Deialdian parte hartzeko eskatzen diren datu pertsonalak berauen babeserako legeen arabera tratatuko dira. Era berean, datu pertsonal guztiak fitxategi batean sartuko dira prozesua zertan den jakinarazteko eta Bilboko Udalaren Enplegu, Gazteria eta Kirol Sailak antolatzen dituen ekintza berrietara gonbidatzeko.

Parte-hartzaileek eskubidea dute euren datuetara jotzeko, eta datu pertsonalak eta irudiarenak ezerezteko, aldatzeko eta zuzentzeko, idazki bat bidalita Bilboko Udaleko Enplegu, Gazteria eta Kirol Sailera.

Proiektua garatu ahala sortuz doazen testuak eta irudiak zabaldu egin ditzake Bilboko Udalak komunikabideetan (prentsa, irratia, telebista) eta udal espazio birtualetan, besteak beste. Parte-hartzaileek, parte-hartze hutsaren bidez, ziurtatu egiten dute prest daudela parte hartzeko euren ekimenak komunikabideetan zabaltzen elkarrizketen, artikuluen, erreportajeen eta abarren bidez, Udaleko Enplegu, Gazteria eta Kirol Sailaren koordinaziopean eta gestiopean.

Aurkeztutako lanen eskubideak beste inork ez izatearen eta irudi-eskubideen erreklamazioen gaineko erantzukizuna parte-hartzaileena da. Argitaratzekotan Creative Commons lizentziarekin argitaratuko dira.

7. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarri guzti-guztiak onartu direla esan nahi du. Enplegu, Gazteria eta Kirol Sailak bere gain hartzen du oinarriok aldatu ahal izateko eskubidea, betiere proiektua behar bezala bideratzeko.